

330 – Idazketa sortzailea: Nitik Gura

Yolanda Arrieta – *Freelance. Usurbil.*

<http://bit.ly/1VRKNzQ>

Gauzak idatziz kontatzeko entrenamendu bat da idazketa-tailerra. Tailer honetan, idazketa sortzailea landuko dugu, batik bat. Horretarako, euskarak -men atzizkiaz izendatutako ahalmenak jarriko ditugu martxan: ikusmena, entzumena, usaimena, dastamena, ukimena... Irudimena eta logika lagun bikiak direla ohartuko gara. A! Eta emoziorik gabe ez goazela inora.

Aditza, gramatika, hiztegia, egiturak nahiz deklinabidea modu librean erabiltzeko saiakera bat izango da; idazlanak elikatzeke proposamen-multzoa; euskara NI-arekin konektatu eta besteokin partekatzeke praktika osasungarria.

Ikasgela (www.irakasbil.eus > NIRE IKASTAROAK)

Matrikula egin ostean, ataritik plataforma barrura sartu, dagozkizun **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** idatziz. Ikasgela "Nire ikastaroak" sailean aurkituko duzu.

Helburu orokorrak

- 1** Idazketaren alde sortzailea lantzeko baliabideak erakustea, tailer gisa, praktikatik teoriara salto eginez, eskarmentuan eta bizipenetan oinarritutako dinamika baten bidez.
- 2** Idazteak sortarazten duen izuari aurre egiten ikastea, joko dinamikoen bidez.
- 3** Euskarazko NI-a indartzeko, osatzeko eta aberasteko ekimen elikagarri bat eskaintzea, jolas-giroan.
- 4** Euskaraz bizi, hezi eta hazi nahi duen orori baliabide propioak deskubritzeko eta erabiltzeko aukerak zabaltzea, hitz idatzia bitarteko delarik.

Helburu operatiboak

- 1** Dinamikaren jokoan parte hartuz, ondo pasatzeko prest egotea.
- 2** Saioetan emango diren abiapuntuei jarraituz idaztea eta, ondoren, idatzi horiek besteen aurrean irakurtzea.

3 Partaidea idazle-ikasle-sortzaile gisa aritzea tailerrean, ondoren, irakasle gisa gelan ari denean, tailerreko esperientzia ere baliagarri gerta dakion, bertako joko eta proposamenak martxan jarri nahi dituenen.

4 Partaide bakoitzak koaderno bat osatzea, bere bizipen eta zirriborroekin: sorturiko idatziak, idatziek sortarazitako ideia berriak, besteengandik jasotako iritziak, eskolan frogatzeko moduko ariketak...

Egitaraua

Edukiak	Orduak
1. ZERO. Ekimenaren dinamika zehaztuko dugu. Oinarriak finkatu, gunearen ezaugarri nagusiak izendatu eta martxan hasteko jokoak egingo ditugu.	Lehenengo eguna 09:00 – 11:00
2. NI-TIK GU-RA. Nor bere ahotsetik aritzearen garrantzia aztertuko dugu. Adierazpenaren eta komunikazioaren arteko loturak eta harremanak ikusiko ditugu, idazle-irakurle roletan sakonduz.	Lehenengo eguna 11:30 – 13:30
3. ZENTZUEN LABORATEGIA. Zentzuak trebatuko ditugu irudimenari jaten emateko. Egunerokotasunari zukua ateratzeko ariketak egingo ditugu. Kode, genero eta ereduaren ezaugarri bikoitza aztertuko dugu, abiapuntu gisa baliagarri zaiguna aprobetxatzeko asmoz.	Bigarren eguna 09:00 – 11:00
4. OROIMENA ETA IRUDIMENA. Zentzuetatik iragazitako informazioaz nola baliatu landuko dugu. Esanahiak bilatzeko eta deskubritzen joateko jokoak eta zirriborroak egingo ditugu, mapa sentimentalak eta mapa mentalak tartekatuz.	Bigarren eguna 11:30 – 13:30
5. AMUAK ETA IRAGAZKIAK. Besteen lanak eta esanak esanahi berriak atzemateko amu aproposak direla frogatuko dugu; irakurritako pasarte batek nola jar dezakeen martxan berriro sorkuntza-prozesua, beste pasarte bat sortzeko tresna bilakatu delako.	Hirugarren eguna 09:00 – 11:00
6. HAZIAK ETA UZTAK. Bizipen- eta zirriborro-koaderno antolatzekeo tarte bat hartuko dugu. Ondoren, partaide bakoitzak tailerrean sorturiko testu bana hautatuko du, besteen aurrean irakurtzeko. Testuok banaka, binaka, hirunaka edo launaka aurkeztuko dituzte besteen aurrean. Hitza, musika (erritmoa) eta aulki bat erabiliko dute aurkezpenetarako.	Hirugarren eguna 11:30 – 13:30

Metodologia

Ekina izango da motor eta gidari. Praktikatik teoriara salto egingo dugu, egiteari utzi gabe. Ekinak irekitzen dizkigun aukera berriei adi arituko gara. Sormena lantzea zera dela ikusiko dugu: uneari ahalik eta etekinik handiena ateratzea.

Ebaluazioa

Tailer baten lema "ekinez ikastea da". Dinamika aktiboa eskatzen du. Gidaritza aktiboa eta partaidetza aktiboa. Irakaslea edo gidaria ikasle-partaideen jarrera aktiboaz baliatuko da, unean uneko ariketa edo proposamenari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko. Beraz, partaideak dinamikan sartzeko prest egon daitezela eskatuko da; ekimenean murgildu eta disfrutatzeko prest egotea. Beste guztia, nire kontu.

Ikasleek prozesua hasten duten egunetik amaitzen duten arte **ebaluazio etengabea** eta **segidakoa** eginez neurtzen da ikasitakoa zenbateraino lortu den. Horrela, hezitzailea heziketa-ekintza osoan ikasleek burutu duten prozesua ezagutzeko, aurreikusteko eta egiaztatzeko moduan izango da. Ikasketari bakoitzaren abiapuntua ezagutzeko, ebaluazio-ariketa batekin emango zaio hasiera ikastaroari.

. *Zer eta nola*

Ebaluazio etengabea ikastaroaren plangintzan (lan-egitasmoan) proposatutako jardueri buruzko lanetan oinarrituta burutzen da, baita ikastaroan izandako parte-hartzetik / jarraipenetik abiatuta ere.

Jarduerak proposatutako xede-helburuen lorpenari buruzko iritzien arabera neurtzen dira, eta balorazioak era honetara burutzen:

- . **A** (*Oso jarduera ona*, eskuratutako ezagutzei berrikuntzak eta originaltasuna eransten die.)
- . **B** (*Jarduera ona*, proposatutako helburuak kalitatez landu direla adierazten du.)
- . **C** (*Jarduera zuzena*.)
- . **D** (*Proposatutako helburuak gainditu ez izana* adierazten du.)
- . **E** (*Proposatutako helburua erdiesten parte hartu ez izana* adierazten du.)

Ikastaroa gainditzeko beharrezkoa da: **1** Ikasgelan egin beharko diren jardueretatik gutxienez % 75 burutu izana, eta horietako bakoitzean gutxienez C kalifikazioa lortzea. **2** Eta aurrez aurreko ikastaroan, gainera, ordu-kopuruen % 80an bertan egotea.

. Helburu operatiboak lortu diren baloratzeko, ikasle bakoitzak ondoren zehaztuko den/diren ataza(k) egin beharko d(it)u.

Helburu operatiboak	Atazak Azpiko atazak hiru saioetan zehar eginez joan da ikaslea, beste partaideekin batera, tailerraren dinamika barruan.
1 Dinamikaren jokoan parte hartuz ondo pasatzeko prest egotea.	MARTXAN HASTEKO JOKOAK Sormenak bide paraleloak eta kontrapuntuak maite ditu; errealitatea interpretatzeko ikuspuntu berriak. Jarrera baikorra eta irekia behar dugu horretarako. Beraz, ohikotasuna aparkatu, aukeratik altxa eta jolasean hasiko gara, jolasean nor bere buruarekin eta gainontzeko partaideekin, hanka sartzeko beldurrik gabe, harritzeko prest, bidean zer deskubritzeko zabal eta adi, gogoia eta ilusioa lagun harturik.
2 Saiotan emango diren abiapuntuei jarraituz idaztea eta, ondoren, idatzi horiek besteen aurrean irakurtzea.	NI-GANDIK IDAZTEN, ZENTZUEI ADI, KODE BERRI BILA Originaltasuna da sormenaren ikur nagusia. Originala izatea norbera izatea baino ez da, ordea. Gutariko bakoitza izaki original eta bakarra denez gero, norberaren NI-tik kontaktzen eta idazten trebatuko gara. Beraz, zeinek bere idatzia besteen aurrean irakurtzean oharituko gara, bat, abiapuntu berari erantzuteko aukera mordo bat dagoela, eta, bi, aukera berri horiei erantzun propioa ematea dela, hain zuzen ere, sortzailea eta originala

	<p>izatea.</p> <p>Haatik, nork bere idatzia lagunen aurrean irakurtzean jabetuko gara, baita ere, besteengana heltzeak duen garrantziaz, Ni-tik Gu-ra aritzearen garrantziaz.</p>
<p>3 Partaideak idazle-ikasle-sortzaile gisa aritzea tailerrean, ondoren, irakasle gisa gelan ari denean, tailerreko esperientzia ere baliagarri gerta dakion, bertako joko eta proposamenak martxan jarri nahi dituen.</p>	<p>GANBARA BEREKO BI GELA: OROIMENA ETA IRUDIMENA</p> <p>Idaztea oroimenak asmatzea dela (Iban Zaldia) frogatuko dute partaideek, pertsonaia baten hitzezko argazki-albuma osatuz.</p> <p>TESTUA NEURE EGIN, TESTUKO PROTAGONISTA BIHURTU, TESTUKO JOKOARI JARRAITU. Zer ikusteko?</p> <p>Jasotako informazioa nork bere galbahetik iragazi ondoren geratzen dena dela benetako jakituria.</p>
<p>4 Partaide bakoitzak koaderno bat osatzea, bere bizipen eta zirriborroekin: sorturiko idatziak, idatziek sortarazitako ideia berriak, besteengandik jasotako iritziak, eskolan frogatzeko moduko ariketak...</p>	<p>NIREA ZURE, ZUREA NIRE, NIREA ETA ZUREA GURE</p> <p>Partaideek tailerrean sorturiko testu bana aurkeztuko dute besteen aurrean. Hitza, musika (erritmoa) eta aulki bat erabili ahal izango dute.</p>

Bibliografia - Oinarritzkoa

Tailerretako materiala ekinez sortzen joan naiz. Ez dut metodo edota gida zehatzik jarraitu: behaketa, ekina, hausnarketa eta moldaketa izan ditut lan-tresna. Azpian agertzen diren liburuak lagungarri gerta daitezke, bai; baina, ahaztu gabe, idazketa-tailer baten funtsa zera dela: ideia hutsetan katramilatu gabe, ideia horiei tira egin eta idazten jartzea.

El gozo de escribir. Natalie Goldberg. LOS LIBROS DE LA LIEBRE DE MARZO, 2015

La poética del espacio. Gastón Bachelard. FONDO DE CULTURA ECONÓMICA, 1965

Leer con los cinco sentidos. Victor Moreno. PAMIELA, 2003

Va de poesía. Victor Moreno. PAMIELA, 2004

Vivir, escribir. Annie Dillard. ED. Y TALLERES DE ESCRITURA CREATIVA FUENTETAJA
Hacia una literatura sin adjetivos. Maria Teresa Andruetto. EDITORIAL COMUNICARTE, 2004

Literatura hiztegi tekniko laburra. Karlos Linazasoro. ELKAR, 2015

Bibliografia - Osagarria

Narrazio tailerra. Mikel Hernandez Abaitua. EREIN, 2011

Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako. Joseba Sarrionandia. XANGORIN, 2010

Estilo ariketak. Raymond Queneau. IGELA, 2006 (ariketa modura)

La cocina de la escritura. Daniel Cassany. ANAGRAMA, 1995

Taller de textos. Daniel Cassany. PAIDÓS, 2006

El deseo de escribir: propuestas para despertar y mantener el gusto por la escritura. V. Moreno. PAMIELA, 2004

Dale que dale a la lengua –Tomo I [eta] II- Propuestas para hablar y escribir textos expositivos, argumentativos, instructivos y lúdicos. Victor Moreno. PAMIELA, 2008